



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzak 15**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de mayo de 2018**

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### 289.351 EUROREN BEKAK LEHEN SEKTOREAN IKERTZAILEAK ETA TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO

- **Horrela, parekatu egingo dira lehen sektorean eta landa ingurunean arituko diren teknologoek eta ikertzaileen prestakuntzarako laguntzak**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak azken bileran erabaki duenez, 289.351 euroren zuzeneko laguntza bat emango da lehen sektorean eta landa ingurunean arituko diren teknologoek eta ikertzaileen prestakuntzarako laguntzak parekatzeko.

Diru laguntza Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren aurrekontuen kontura emango da, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza arduratuko da diru laguntzaren kudeaketaz eta kontrolaz.

Prestakuntzarako laguntza horiek bi programa bitartez gauzatuko dira: batetik, ikertzaileen programa, eta, bestetik, teknologoena.

- Ikertzaileentzako laguntzak lau urterako izango direla aurreikusten da, eta onuradun bakoitzak berak aukeratutako proiektuan doktoretza tesia lortzera bideratuta daude.
- Teknologoentzako laguntzak, berriz, bi urterako dira eta, aukeratutako proiektuaren alorrean prestatzeko badira ere, ez dira inolako titulaziorik eskuratzeko.

Diru laguntzaren zenbatekoa onuradunen artean banatuko da eta AZTI, NEIKER; EHU/UPV eta LEARTIKER erakundeek bitartez zabalduko dira.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **720.000 € EUSKADIN ARKITEKTURAREN IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, Euskadiko arkitektura eta hirigintza aztertzea, sustatzea eta zabaltzea bultzatzeko, bai eta lan horri lotutako jarduera zientifikoa sustatzeko ere, nagusiki ingurumenarekin errespetuzkoak diren sistema eta eraikuntza-materialetan zentratuta.

Lankidetzaz horrek honako eremu hauek hartuko ditu:

- Lurraldean eraikuntzako ezarpen-ereduak aztertu eta miaztea; bertan, paisaia-eragina, irisgarritasuna eta mugikortasuna, garapen berriak eta klima-aldaketa, etxebizitzak garraio publikoarekin duen harremana aztertuko dira, besteak beste.
- Etxebizitza-tipologiei buruzko proiektu-analisia egitea. Eskakizun sozial berrietara, familia- eta bizikidetzaz-ereduetara eta abarretara egokitutako arkitekturak garatzea.
- Ingurumenarekin errespetuzkoak diren sistema eta eraikuntza-material berriak garatzea, Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoarekin bat etorritik.
- Ingurumenarekin errespetuzkoak diren sistema eta material berriak aplikatzea eta praktikan jartzea obra berriko eta/edo birgaitzeko etxebizitzaz sustapenetan.
- Euskadiko arkitekturaz eta hirigintza sustatzea, ikertzea eta zabaltzea.

Urtero jarduketen, proiektuen eta jardueren programa adostuko da. Era berean, Etxebizitza Sailak konpromisoa hartzen du egindako lanetatik eskuratzen diren sistema eta eraikuntza-material berriak bere eskumenen eremuan egiten dituen etxebizitza berriko edo birgaitutako sustapenetan sartzeko aukera aztertzeko. Hitzarmen honek etxebizitzaz arkitekturaz arloan berrikuntzarako lankidetzaz-espazioa irekitzen du.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, eta, guztira, 720.000€-ko zuzkidura ekonomikoa, urtean 180.000 eurokoa.

## Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **EUSKADIKO ARKITEKTURA GARAIKIDEKO INSTITUTUA SORTZEKO HITZARMENA**

Gobernu Kontseiluak onetsi du lankidetzeta-hitzarmena sinatzea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, Donostian Euskadiko Arkitektura Garaikideko Institutua (EAGI) sortzeko.

Institutua bi helburu nagusirekin sortuko da: euskal arkitektura garaikidea zabaltzea eta sustatzea eta arkitekturaren inguruan eta bere alderdi sozial, kultural eta ekonomiko ugariren inguruan jarduerak antolatzeko eta topaketarako erreferente iraunkor bilakatuko den espazioa izateko.

Hitzarmenean aurreikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak 1.386 m<sup>2</sup>-ko espazioa lagatzea, Santa Teresa komentuan; eraikina balio historiko handikoa da eta 2004an birgaitu zen. Higiezina Gipuzkoako hiriburuko alde zaharrean dago eta bertako lehen, bigarren eta hirugarren solairuan Institutuaren egoitza egongo da.

Euskadiko Arkitektura Garaikideko Institutua arkitekturaren arloan erreferentziazko zentro bilakatzeko sortu da. Bertan, MUGAK - Euskadiko Arkitekturaren Nazioarteko Biurtekoaren bulego iraunkorra egongo da, eta haren egoitza nagusi izango da hurrengo edizioetan. Biurtekoen artean, zabalkunderako programazio zabala izango du, eta publikoa jeneralista izango du, nagusiki. EAGI arkitekturaren, hiriaren eta ingurunearen inguruko topaleku eta eztabaida-gune izango da, berez ekoitzitako jardueren bidez. Gainera, beste erakunde batzuek ere ekarpenak egin ahalko dituzte, eta nazioarteko beste eduki ibiltari batzuk ere hartuko ditu.

Lankidetzeta horren esparruan, Etxebizitza Sailak konpromisoa hartu du Institutua sortzeko, egokitzapen-gastuak bere gain hartzeko eta jarduerak egiteko baliabide teknikoak eta materialak eta giza baliabideak hornitzeko. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Santa Teresa komentuari eraikineko espazioak jarriko ditu Institutuaren esku, eta eraikinaren funtzionamendu, mantentze-lan eta kontsumoen gastuak hartuko ditu bere gain.

## Hezkuntza

### 32,3 MILIOI EURO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN UNITATEAK SORTZEKO, ITUNPEKO IKASTETXEETAN

- **2017-2018 ikasturtean, 581 profesional arduratu dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleez deialdi honen bidez**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran onartu du, Hezkuntza Sailburuak proposatuta, 2018-2019 ikasturterako hezkuntza berezirako unitateak zehaztu ditzaten itunpeko ikastetxeei dei egiten dien Agindua.

32.349.863,59 euroko kopuru osoa duen deialdi hau, Euskadin Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxeei zuzendua da, hurrengo ikasturterako ituntzeko unitateak zehaztu ditzaten, honako atal hauetan: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, berariazko hezkuntza-errefortzuko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan.

#### **581 profesional**

Deialdi honen bidez, itunpeko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzan eta DBHn ari diren eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko beharrezko diren profesionalak finantzatzen ditu Hezkuntza Sailak.

2017-2018 ikasturtean, 457 gela itundu dira orotara hezkuntza berezi irekian: 245 gela ireki Lehen Hezkuntzan, eta beste 212 gela ireki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Unitate horietan, orotara, 5.392 ikasle batu dira. Ikasle horiez arduratzeko, Pedagogia Terapeutikoko 458 irakasleren lana finantzatu du Hezkuntza Sailak.

Era berean, berariazko hezkuntza-errefortzuko 75 proiektu, eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko 48 programa ere itundu dira ikasturte honetan, guztiak ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Programa hauetarako hezkuntzako 123 profesional aritu dira lanean, hauek ere deialdi honen bidez finantzatuak.

**Hezkuntza berezi irekia:** Lehen Hezkuntzan zein DBHn, hezkuntza premia bereziak dituen ikaslea bere ohiko ikasgelan egon ohi da, ingurune normalizatu eta inklusiboan, eta ingurune horretan jasotzen du pedagogia terapeutikoko irakasleen laguntza. Horrela ulertu behar da "irekia" kontzeptua. Batez ere, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahasketetatik eratorririko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izan ohi dira, ikasteko zailtasunak dituztenak, hezkuntza-sisteman berandu sartu direnak, edo arreta-faltagatik desoreka dutenak, besteak beste.

**Berariazko hezkuntza-errefortzuko programek** errefortzu-irakaslez hornitzen dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroak, ikasle guztien osoko prestakuntzan eragingo duten hezkuntza-jardunbideak antolatzeko aukera izan dezaten. Bereziki, gizarte-egoera kaltetuekin lotuta beren curriculum-erreferentziarekiko atzerapena agertzen duten edota eskola-girora egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleei zuzentzen zaie programa. Hau da, DBHko lehenengo eta bigarren mailakoak izanik, Lehen Hezkuntzako curriculum-erreferentzia agertzen duten ikasleei zuzentzen zaie. Programa honen baitan, ikasleek ikasgela arruntean ikasiko dute, beren ikaskideen irakaste-ordutegi berean.

Bestalde, **Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan**, aurrekoetan ez bezala, berariazko taldeak sortzen dira ikastetxeetan. DBHko hirugarren nahiz laugarren mailako ikasleei zuzentzen zaizkie, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diplomadun-titulua lortzera bideratzen dira. Hain zuzen, DBHn matrikulatutako ikasle guztiek titulua lortzea bilatzen du; hartara, ikasketekin modu normalduan jarraitu ahal izan dezaten. Horretarako, 8-15 ikasle arteko taldeak eratzen dira institutuetan, eta curriculum-arloen bitartez irakasten dira ikasgaiak talde horietan: batetik, hizkuntzen eta gizartearen arloa; bestetik, zientzia eta teknologiarena. Arlo bakoitzean, erreferentziako irakasle bat ezartzen da eta hark antolatzen ditu esparru horretako ikasgaiak, modu globalagoan antolatu ere, arloko ikuspegi batetik. Hala, ikasleek bizitzan aurrera egiteko beharrezko gaitasunak bereganatuko dituzte arlo bakoitzean, eta ez dute horrenbeste jardungo ikasgaien eduki oso espezifikoetara lotutakoetan.

## Osasuna

### **GOBERNU KONTSEILUAK, GAUR, EUSKADIKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAREN ERREGISTRO BERRIA SORTU DUEN DEKRETUA ONETSI DU**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Jon Darpón Osasun sailburuak proposatuta, Euskadiko Elikagaien Establezimenduen Erregistro berria (EAEIEEE) sortu duen eta osasun-baimena eskuratzeko prozedurak edo elikagaien enpresa eta establezimenduek jarduera hasi aurreko jakinarazpena egitea arautzen dituen Dekretua onetsi du. Helburua da osasun publikoa eta pertsonen eskubideak babestea eta, horretarako, jarduera Euskadin egiten duten edo izen soziala Euskadin duten elikagaien enpresa eta establezimenduen jarduerak kontrolatzea.

Horrela, Dekretuak jaso duen bezala, EAEIEEEen erregistratu beharko dira giza kontsumorako elikagaiak edo elikadura-produktuak, elikagaiekin harremanetan egoteko material eta objektuak eta elikagaiak prestatzeko erabiltzen diren laguntzaile teknologikoak helburu dituen jarduera betetzen duten enpresa eta establezimendu guztiak, baldin eta jarduera horiek ekoizpen, eraldatze, prestatze, ontziratze, biltegitratze, banaketa, garraio eta inportazioko kategoriaren batean sailkatu ahal badira.

Era berean, salmentarako edo in situ amaierako kontsumitzaileari entregatzeko elikagaiak manipulatzeko, eraldatzen, ontziratzen, biltegitratzen edo zerbitzitzen dituzten elikagaien establezimendu eta enpresak, iraunkorrak edo sasoiaren araberakoak izan, etxeko edo kolektiboentzako banaketa izan ala ez.

Eta, halaber, maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretua (Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzen dituen) bete behar duten establezimenduak, ekoizpen primarioarako direnak salbu.

Arauketa berriak aurreko 223/1996 legeingintzako Dekretua ordezkatzeko du, eta Europako araudira egokitzeko beharrezko aldaketak jaso ditu. Nobedade nagusietako batzuk dira honako hauek: inskribapena bakarra eta baliozkoa izateko, elikagaien establezimenduan baldintza berei eutsi beharko zaie; administrazio-izapideak eta osasun-baimena eta jarduera hasteko eta ondoko aldaketetarako aurretiko jakinarazpena argi bereizten ditu; sareko izapidetzea jasotzen du eta Erregistroko datuen publikitatea eta babes arautzen ditu, eta horrek hobekuntza nabarmena ekarriko du elikagaien segurtasuneko prozeduren kudeaketan.

## Osasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 3,7 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATZEN DITU OSASUNeko IKERKETA ETA GARAPEN PROIEKTUETARAKO LAGUNTZETARA**

- **Ikerketa traslazonala sustatu nahi da, alegia, emaitzak eta ezagutza aplikatzea praktika klinikoari, pazientearen onerako**
- **Deialdiak hainbat izaeratako taldeen arteko lankidetzak sustatzen du, osasuneko garapen teknologikoa bultzatzeko eta, aldi berean, aberastasuna sortzen ere laguntzeko**

Eusko Jaurlaritzak, Jon Darpón Osasun sailburuaren aginduz, osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuen laguntzetarako 2018ko deialdia onetsi du; 3.785.000 euroko aurrekontua du. Deialdia 2020rako Osasun Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategian kokatzen da, eta bat dator 2020rako Zientzia eta Teknologia eta Berrikuntza Planaren ardatz estrategikoekin eta espezializazio adimenduneko RIS 3 Euskadi estrategiarekin.

Agindu honetan araututako jarduketan helburu nagusiak xede bikoitza du: pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren eginkizuna hobetzen laguntzea eta, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktu, zerbitzu eta prozesu berrien bitartez garapen sozioekonomikoari laguntzea.

Helburu horiek betetzeko, deialdia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea eratzen duten eragileei dago zabalik, eta lankidetzan oinarritutako ikuspegia duten eta osasunean, gizartearen eta ekonomian eragina duen ezagutza sortzera eta integrazera bideratzen diren proiektuak egitea sustatzen du.

Aurten, deialdiak hiru laguntza-ildo ditu:

1. Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea, osasun-sistemaren ikerketa-gaitasuna bultzatzeko, ikerketa-talde berriak sortzea barne.
2. Osasun-ikerketa sustatzea, estrategikoa, Euskadik osasun-eremuan dituen gaitasun zientifiko-teknologiko guztiak aprobetxatzeko, bai eta garapen teknologikoa, produktu berriena, prozesuena eta zerbitzuena bultzatzeko ere.
3. Interes bereziko ekintza osagarriak, RIS3 strategiaren helburuekin bat datozenak. Ildo hau berria da, eta biozientzia-osasunaren RIS3 strategiaren lehentasunezko arloetan lankidetzak sendotzeko sartu da.



Eusko Jaurlaritzak ikerketarekin duen konpromisoari eusten dio, tinko, eta, horrela, % 45etik gora igo du 2017. urteko deialdiaren hasierako zuzkidura. Deialdi horren bidez, I+G jarduerako 48 proiektu finantzatu ziren eta, horietatik, 30 ikerketa-zentroekin, osasun-zentroekin, unibertsitate-zentroekin eta erakunde teknologikoekin lankidetzan garatzen dira, guztira 20 erakunde izanik. Eta 6 proiekturen bidez laguntza eman zitzaizen ikertzaileei, ikertzaile nagusi gisa beren lehen proiektuko buru izateko eta, horrela, belaunaldien arteko txandakatzea sustatzeko.

Diruz lagundutako proiektuek hainbat alderdiri heldu zieten, besteak beste: patologia nagusien gaineko ikerketa (minbizia, iktusa, Alzheimerra, BGBK, obesitatea, osasun mentala etab.), bai eta gaixotasun arraroena ere (esaterako, “kristalezko hezurrak”); osasun-zerbitzuetako ikerketa, osasunaren sustapenari, gizarte-desberdintasunei, adikzioei buruzko ikerketa; diagnostikorako garapen teknologikoa, telemedikuntza, gailu medikoen fabrikazioa, Deep learning-a edo operazio kirurgikoak hobetzeko errealitate areagotua; eta medikuntza-ikuspegi pertsonalizatua edo etengabeko ikaskuntza-sistemen garapenari buruzko ikuspegiak (Learning Health systems).

Hori guztia, Osasun Planean eta biozientzia-osasunaren RIS3 estrategian jasotako lehentasunei erantzuteko; hala, genero-ikuspegia ere sartu da eta horren adierazle da, besteak beste, aurrekontuaren % 55 emakumeak lider zituzten proiektuetara (ikertzaile nagusia) bideratu zela.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

**EUSKAL BIZTANLERIAREN ERDIAK BAINO GEHIAGOK USTE DU KULTUR POLITIKEK LEHENTASUN HANDIA IZAN BEHAR DUTELA, ETA % 43K USTE DU BALIABIDE PUBLIKOAK KULTURA IRISGARRIAGO EGITERA BIDERATU BEHARKO LIRATEKEELA**

- **Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua Gobernu Batzordearen ondorengo prentsaurrekoan azaldu da, kultur arloari buruz egindako Soziometro baten berri emateko**

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua Gobernu Batzordearen osteko prentsaurrekoan azaldu da gaur, Josu Erkoreka bozeramailearekin batera, kulturaren inguruan egindako Soziometroaren datuak aditzera emateko. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako inkesta honen arabera, sailburuak nabarmendu duenez, biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 57k) uste du kultur politikak lehentasun handia izan beharko luketela Jaurlaritzaren politiken artean eta, horrekin batera, beste % 35ek uste du lehentasun ertaina izan beharko luketela (soilik % 3k uste du lehentasun txikia izan beharko luketela). Azterketa horrek, era berean, agerian utzi du herritarren ia erdiek uste dutela baliabide publikoak kultura irisgarriago egitera bideratu beharko lirатеkeela (% 43), sortzaileei laguntzera bideratu beharko lirатеkeela uste dutenen gainera (% 28).

Soziometro horren landa-lana joan den otsailaren 26tik martxoaren 5era egin zen, etxez etxeko 1.973 elkarrizketaren bitartez, eta Zupiria sailburuak esan duenez, herritarrek kulturak erakunde publikoen babes handia jaso behar duela nabarmendu dute. “Herritar gehienek esaten digute erakundeok era argian babestu behar dugula kultura; lehentasun handia duela. Oso alderdi positiboa dela iruditzen zait. Haatik, inkesta horretatik ondoriozta daitekeenez, biztanleriaren gehiengoak uste du kultura irisgarriago egitera bideratu beharko lirатеkeela baliabideak, sortzaileen lana zuzen-zuzen laguntzera bideratzearen gainera. Gure iritziz, alderdi horren inguruan nolabaiteko pedagogia egin beharko litzateke; izan ere, gure kultura sistema osasungarri eduki nahi badugu, aintzat hartu beharko dugu sortzaileen lanak kulturazaleen babesaren izan beharko duela, eta lan hori ere ordaindu beharko dela. Hain zabaldua dagoen ‘doakotasunaren kulturari’ aurre egin behar diogu kulturgintzaren arloan ere” erantsi du.

Sailburuak adierazi duenez, inkesta erantzun dutenen % 43ren iritziz, kulturara bideratzen diren baliabideak batez ere zuzendu beharko lirатеke kultur eskaintza irisgarriago egitera (% 43); ondoren daude uste dutenak baliabideak sortzaileei laguntzera bideratu beharko lirатеkeela (% 28) eta, azkenik, ondarearen kontserbaziora zuzendu beharko lirатеkeela uste dutenak (% 22).

Euskal herritarrok kulturaren inguruan ditugun ohiturei eta iritziei buruzko Soziometro horrek jasotzen duenaren arabera, hamarretik seiren iritziz, administrazio publikoek gaur egun ematen dioten babes baido babes handiagoa eman beharko liokete kulturari (% 64); hamarretik biren iritziz, maila berean babestu beharko lukete (% 21), eta hamarretik batek soilik uste du gaur egun baino babes txikiagoa eman beharko lioketela (% 9). Horrez gain, gutxi gorabehera hamarretik zortziren iritziz, kulturaren inbertitzeak asko edo dezente hobetzen du elkarbizitza (% 84), bizi-kalitatea (% 84) eta ekonomia (% 81).

### **Irakurketa**

Irakurzaletasuna izan da inkestak hartu duen arloetako bat; horren arabera, biztanleen erdiek baino gehiagok irakurtzeko zaletasun handia edo nahikoa dutela adierazi dute (% 57) eta % 86k denbora librearen zati bat irakurtzen ematen dutela (prentsa, liburuak edo bestelako irakurgaiak).

Irakurtzeko maiztasunari dagokienez, ia erdiek (% 47) egunero edo ia egunero irakurtzen dute, % 19k astean bi edo hirutan, % 15ek noizean behin eta % 5ek gutxitan. Aldiz, ia inoiz ez edo inoiz irakurtzen ez dutenak % 13 dira. Irakurtzen ez dutenen artean arrazoi nagusiak ohiturarik ez izatea (% 46) eta irakurtzea gustuko ez izatea (% 44) dira, eta baita ere denbora falta (% 39). Irakurtzen dutenen artean, berriz, arrazoi nagusienak dira informatua egotea (% 67), denbora pasa edo ondo pasatzea (% 56) eta gauza berriak ikastea (% 25).

Irakurleen erdiek (% 50) irakurtzen dute formatu digitalean (% 13k soilik formatu digitalean eta % 37k digitalean eta paperen). Eta horrekin lotuta datu azpimarragarri bat atera da: 2004an % 18 ziren testuak digitalean (ordenagailuan) irakurtzen zituztenak. Irakurleen % 85ek liburuak irakurtzen dituztela adierazi dute: egunero edo ia egunero laurdenak (% 25) eta astean behin gutxienez beste laurdena pasatxok (% 29), gainerakoek maiztasun gutxiagorekin.

Irakurleen artean liburuak inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dituztenak % 14 dira. Dezente gehiago dira liburuak irakurtzen dituzten emakumezkoak gizonezkoak baino. Liburuak irakurri dituztenek batez beste 8 liburu irakurri dituzte azken 12 hilabeteetan. Irakurritako azken liburuari dagokionez: % 54k gizonezko batek idatzitako liburua irakurri dute. Portzentaje hori % 66ra igotzen da gizonezkoen kasuan eta % 44ra jaitsi emakumezkoen kasuan; % 5ek azken liburua euskaraz irakurri dute, euskaraz badakitenen artean % 10ek; % 16k formatu digitalean irakurri dute.

### **Musika**

Musikarekiko zaletasuna ere aztertu du Soziometroak, eta horren arabera, handia da biztanleen artean (% 81ek zaletasun handia edo nahikoa dutela adierazi dute). Hamarretik zazpik musika egunero edo ia egunero entzuten dute (% 67) eta hamarretik bik astean hainbatetan (% 18). Musika inoiz edo ia inoiz entzuten ez dutenak % 2 baino ez dira. Irratia edo telebista dira musika entzuteko gehien erabiltzen diren gailuak (% 45) eta bigarren erabiliena interneten zuzenean entzundako musika da (% 24); gainera % 12k internetetik

doan jaitsitako musika entzuten dute. Azkenik, % 9k erositako edo grabatutako musika entzuten dute (mp3, CD edo DVDak).

Halere, gazteenen artean joerak bestelakoak dira (18-29 urte bitartean); horiek batez ere zuzenean internet bidez entzuten dute musika (% 54k), eta bigarrenik internetez doan jaitsitako musika (% 16). Irratian edo telebistan entzuten dutenak % 13 baino ez dira eta erositako edo grabatutako musika % 8. Popa (% 38) eta rocka (% 36) dira oraindik ere musika estilo gustukoenak, maila apalagoan musika klasikoa (% 18), abesti herrikoiak (% 15), salsa eta merengea (% 12), 'canción española' delakoa eta rapa edo hip hopa (% 10 bi kasuetan). Azken estilo honek gorakada handia izan du azken urteetan (2006an % 4k soilik aipatu zuten gustukoenen artean). Kantautoreak, rantxerak eta Zartzuela, berriz, proportzio txikiagoan aipatu dituzten egun 2006 urtean baino. Biztanleen % 45ek aipatu dute azken 12 hilabeteetan kontzerturen batera joan direla eta % 23k musika disko, CD edo DVDren bat erosi dutela.

### **Zinemagintza**

Zinemagintzari dagokienez, inkestatutakoan artean hamarretik bederatzik asteen behin gutxienez ikusten dute pelikula edo telesailen bat, gehienek telebistan. Pelikulak ikusteko zaletasuna ere hedatua dago, eta hamarretik zortzik diote asko (% 43) edo nahikoa (% 36) gustatzen zaiela. Hamarretik bederatzik asteen behin edo gehiagotan ikusten dituzte pelikulak edo telesailak (% 26k egunero, % 44k asteen hainbatetan eta % 18k asteen behin gutxienez). Gehienek, hamarretik zortzik, telebistan ikusten dituzte pelikulak eta telesailak. Gazteenen artean erdia dira telebistan ikusten dituztenak batez ere, eta % 34k zuzenean interneten ikusten dituzte.

Bestalde, hamarretik sei azken urtean gutxienez behin joan dira zinema aretora pelikularen bat ikustera, eta hamarretik lau, berriz, ez dira joan. Zinemara joan direnen erdiak urtean hiru aldiz baino gutxiagotan joan dira (% 31). Biztanleen % 19k ikusi dute azken 12 hilabeteetan zehar pelikularen bat euskaraz; portzentajea % 36 da euskaraz dakitenen artean.

### **Arte eszenikoak**

Inkestaren arabera, hamar biztanletik lauk adierazi dute arte eszenikoak (antzerkia eta dantza) asko edo nahikoa gogoko dituztela (% 40), eta zenbat eta helduagoak izan zaletuagoak dira. Azken 12 hilabeteetan % 26 joan dira antzerkira, % 20 bat-hiru aldiz, eta gainerako % 6a maizago. Hamarretik zazpi ez dira behin ere joan antzerkira (% 72), lirika eta dantza ikuskizunetara gutxienez behin biztanleen %13 joan dira azken 12 hilabeteetan.

Euskaraz dakiten inkestatutakoak gehiago joan dira azken urtean antzerkira (gutxienez behin % 32), ez dakitenak baino (% 18). Eta euskal hiztunek ikusitako antzerkietatik baten bat euskaraz ikusi zuten % 44k: % 11k ikusitako emanaldi denak, % 6k erdia baino gehiago, % 15ek erdiak eta % 12k erdia baino gutxiago.

### **Bertsogintza**

Bertsogintzarekiko zaletasunaz ere galdetu da Soziometroan, eta horren arabera % 21 dira (asko edo nahikoa) bertsozaleak, euskal hiztunen artean herena (% 33). Euskal hiztunen % 25 joan dira azken 12 hilabeteetan bertsolariak ikustera edo entzutera.

Halaber, azkeneko bertsolari txapelketaren berri biztanleen erdiek izan dute (% 47), eta euskal hiztunen % 67k. Baina bertsolari txapelketaren berri izan dutenen erdiek baino ez zekiten norik irabazi zuen txapelketa (% 51k), euskal hiztunen % 70ek.

### **Museoak eta erakusketak**

Hamar biztanletatik lauk museo eta erakusketetara joateko zaletasuna adierazi dute (% 15ek handia eta % 28k nahikoa). Azken urtean berriz biztanleen % 44 joan dira arte-museoren batera, % 16 zientzia museoren batera eta % 18 historia museoren batera.

Ikusitako arte erakusketetatik % 8 ziren bakarrik emakumezkoenak eta % 31 gizonezkoenak, gainerako % 43k erakusketa mistoak ikusi zituzten (gizonezko eta emakumezkoenak) edo ez dute galdera erantzun nahi izan, % 19k. Museo edo erakusketaren batera joan direnen artean hamarretik zazpik Euskadin kokatutako museo batera joan dira (% 68), gehienak Guggenheimerara eta Bilboko Arte Ederren museora.

### **Kultura jarduera**

Azkenik, kultura jarduerari dagokionez, praktika kulturalen bat egiten dutenak hamarretik bi dira (% 20), gazteenen artean portzentajea apur bat handiagoa da (% 29). Horien artean, ohikoenak diren praktika kulturalak musika tresnaren bat jotzea (% 33), dantzatzea (% 25) eta arte plastikoak (% 24) dira.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 2.400.000 EURO ONARTU DITU UDALEI LAGUNTZEKO KULTURA ONDAREA ZAINTZEN ETA BABESTEN**

- **Agindu honen azken deialdiaren bidez, 2015-2017 urteetarako, 31 proiektu diruz lagundu ziren**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 2.400.000 euroko kontu-sail bat onartu du bere gaurko saioan udalentsako diru-laguntzak sustatzeko kultura ondarea zaindu eta babestu dezaten. Deialdi honen onuradunak horrelako egitasmoak bultzatu nahi duten udalak izango dira, eta hauen bidez 2018-2020 epealdian sustatuko diren proiektuak diruz lagunduko dira. Diru-laguntza lerro honen aurreko deialdiaren bitartez, 2015-2017, 31 proiektu ezberdin diruz lagundu ziren.

Bi diru-laguntza mota bereizten dira deialdi honen baitan: bata, euskal kultur ondarea zaindu, aberastu, babestu eta sustatzekoa, 2.250.000 euroko diru kopurua duena; eta bigarrena, aipaturiko ondare horri eragiten dioten hiri antolaketaarako instrumentuak idatzi eta aldatzekoa, 150.000 euroko diru kopuruarekin (2.400.000 euro orotara).

Agindu honen aurreko deialdia 2015-2017 epealdirako izan zen, eta haren bitartez 31 proiektu ezberdin diruz lagundu ziren hiru urtez. Diru-laguntzak jaso zituzten erakunde gehienak udalak izan ziren, baina bestelakoak ere izan ziren, esate baterako, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte (IOHLEE) edota Bizkaiko Eleiz Museoa. Hauexek izan ziren diru-laguntzak jaso zituzten proiektuetako batzuk: Arrasate Kulturola eraikinaren berrerrabilpena; Audioko Ermuko Andra Mari elizak ikertu, kontsolidatu eta gizarteratzeko proiektua; Zambranako Portilla Kultura Multzoaren garrantzia azpimarratu eta hedatzekoa edota, azkenik, Zallako La Mella multzoaren garrantzia azpimarratu eta hedatzekoa.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **IRAKURKETAREN SUSTAPENERAKO JARDUERAK ETA EUSKAL LIBURUTEGIETAN TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA BULTZATZEKO BI LAGUNTZA-LERRO ONARTU DITU EUSKO JAURLARITZAK BERE GAURKO BILERAN**

- **Lehenengo laguntza-lerroak 260.000 euroko aurrekontua du eta tresna teknologikoak bultzatzeko denak, berriz, 350.000 eurokoa**

Eusko Jaurlaritzak 260.000 euroko partida bat onartu du gaur bere gaurko Gobernu Batzordean, irakurketaren sustapena eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoetako zerbitzuen erabilera bultzatzeko izango diren jardueretarako. Diru-laguntza horiek, joan den urtean 157 udal erakunde onuradun izan zituztenak, 2018an bultzatuko diren ekintzetarako izango dira. Jaurlaritzak, halaber, beste partida bat onartu du, 350.000 eurokoa, liburutegi publikoetan teknologia berrien ezarpenean eta garapenean diruz laguntzeko.

Deialdi hauek ondokoei diruz laguntzeko zuzendutakoak dira: Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalei, liburutegi publikoetako titularrei, eta baita udal liburutegi publikoen eremuan eskumena duten tokiko erakundeei edo eremu horretan funtzioak esleitu zaizkienei, betiere haien liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak direnean. Lehenengo partidaren kasuan, irakurketaren sustapenerako jarduerak bultzatzeko diren diru-laguntza horiek ezin izango dute 30.100 eurotik gorakoak izan erakunde onuradun bakoitzeko, eta diru-laguntza gisa jasoko duten kopuruak ezin izango du eskatutako gastuaren zenbatekoaren % 75 gainditu.

Joan den urtean laguntza horietakoren bat jaso zuten 157 udal erakundeetatik, euskal hiriburuetara zuzendu ziren diru-kopuru handienak: Bilbo (11.521 euro), Gasteiz (10.321 euro) eta Donostia (8.818 euro).

Irakurketa Publikoko Sarera elkartuta dauden liburutegietan teknologia berriak bultzatzeko diren laguntzei dagokienez, joan den urtean guztira 100 udal erakunde izan ziren diru-laguntza horien onuradun. Sareko liburutegiek dituzten tresnak modernizatzea da partida horren helburua, kontuan izanik 204 liburutegik eta 293 sukurtsalek osatutakoa dela (udalerrri batek udal liburutegi bat du baina sukurtsal bat baino gehiago izan ditzake).

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### BECAS DE DE 289.351 PARA FORMAR INVESTIGADORES Y TECNÓLOGOS EN EL SECTOR PRIMARIO

- **De esta manera se equiparán las ayudas de formación de personal tecnológico e investigador que desarrolle su labor en el sector primario y en el entorno rural**

El Consejo del Gobierno Vasco ha acordado en su última reunión aprobar a la concesión de una ayuda directa por un importe de 289.351 euros a para la equiparación de las ayudas de formación de personal tecnológico e investigador que desarrolle su labor en el sector primario y en el entorno rural.

La subvención se otorgará con cargo a los presupuestos del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras y será la Dirección de Calidad e Industrias la encargada de gestionarla y controlarla.

Estas ayudas de formación se materializan a través de dos programas diferentes, el de personal investigador y el de personal tecnológico:

- Las ayudas al personal investigador tienen una duración prevista de cuatro años y están dirigidas a la obtención de la tesis doctoral por parte de la persona beneficiaria en el proyecto que ha sido elegido por cada beneficiaria.
- Las ayudas de personal tecnológico tienen una duración de dos años, y, aunque sí suponen la formación en la materia del proyecto elegido, no dan lugar a la obtención de ninguna titulación.

La cuantía de la subvención se distribuye entre las beneficiarias y se vehicularán a través de AZTI, NEIKER; EHU/UPV y LEARTIKER.



## Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

### **720.000 € PARA EL FOMENTO DE LA INVESTIGACIÓN CIENTÍFICA Y TECNOLÓGICA DE LA ARQUITECTURA EN EUSKADI**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde al convenio de colaboración entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, a través de la Escuela Superior de Arquitectura, para fomentar el estudio, promoción y difusión de la arquitectura y el urbanismo en Euskadi, así como la actividad científica vinculada a esta labor, centrada fundamentalmente en sistemas y materiales constructivos respetuosos con el medio ambiente.

La citada colaboración abarcará los siguientes ámbitos:

- Estudio y exploración de modelos de implantación edificatoria en el territorio, en el que se abordarán cuestiones como el impacto paisajístico, la accesibilidad y movilidad, los nuevos desarrollos y el cambio climático, la relación de la vivienda con el transporte público...
- Análisis proyectual sobre tipologías de vivienda. El desarrollo de arquitecturas adaptadas a las nuevas exigencias sociales, los distintos modelos familiares y de convivencia, etc.
- Desarrollo de nuevos sistemas y materiales constructivos respetuosos con el medio ambiente y alineados con lo establecido en el Código Técnico de la Edificación.
- Aplicación y puesta en práctica efectiva de nuevos sistemas y materiales respetuosos con el medio ambiente en promociones de vivienda de obra nueva y/o rehabilitación.
- Promoción, investigación y difusión de la Arquitectura y del Urbanismo de Euskadi.

